



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 12a

45. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-23/ITP-00025. Interpelazioa, lan-istripuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (3. or.).
- 11-23/MOC-00070. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, Lizarrako Ospitalean Hemodialisiko Unitate bat eraikitzearen kostuari eta eraginkortasunari buruzkoa. Osasun Batzordeak onetsi du (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-23/POR-00261. Galdera, oinarrizko osasun-laguntzako plantillak bermatzeko neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00262. Galdera, BPGari buruzkoa, I+G+b arloko inbertsioari dagokionez. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00263. Galdera, N-121 A errepidearen proiektuko jarduketa-aurreikuspeni buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00264. Galdera, abiadura handiko trenaren geltoki berriaren eremua eta Iruñeko tren geltoki zaharraren eremua garatzeko Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren hirigintza-izapidetzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00265. Galdera, Nafarroan ari diren boluntarioei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00266. Galdera, Nafarroako Ubideko ura Erriberara iristearen datari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (8. or.).
- 11-23/POR-00267. Galdera, POCTEFA 2021-2027 programaren esparruan Nafarroari esleitutako dirulaguntzaren xede eta helburuei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/POR-00268. Galdera, Estatuak Valle H2V Navarra proiektuari emandako dirulaguntzak hidrogeno berdea Nafarroan bultzatzeari dagokionez duen eraginari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (9. or.).

- 11-23/POR-00269. Galdera, Gazteen Internet bidezko apustuen gehiegizko erabileraren gainean ohartarazten duten txostenei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (9. or.).
- 11-23/POR-00271. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Erditzeen Zerbitzuari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/POR-00273. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Erditzeen Zerbitzuari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (11. or.).
- 11-23/POR-00274. Galdera, 2022ko PISA txostenaren emaitzei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/POR-00275. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Ginekologia Zerbitzuari eta Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitateari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (12. or.).
- 11-23/POR-00276. Galdera, ludopatia kasuetarako osasun-laguntzari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/POR-00277. Galdera, Tuterako Ospitaleko ZIU zerbitzuari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/POR-00278. Galdera, foru-erkidegoari eskualdatzeko falta diren eskumenei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (15. or.).
- 11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (15. or.).
- 11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (16. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-23/ITP-00025. Interpelazioa, lan-istripuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako interpelazioa, lan-istripuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du:

Intzidentzia-tasa etengabe igo da 2015tik hona gure foru-erkidegoan, eta tasa doitua batezbesteko nazionalaren gainetik nabarmen gora egin du 2018az geroztik, jarduera-sektoreen pisuaren arabera. Azken aste honetan, bi langile nafar hil dira lan-istripuan foru-erkidegoko enpresetan.

Datu horiek erakusten dutena da Nafarroan abian jartzen ari diren neurriak ez direla eraginkorrak, laneko istripu-tasa murriztea ez lortzeaz gain istripu-tasa ez igotzea ere lortzen ez dutelako.

Hori dela-eta, Osasuneko kontseilariari lan-istripuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten diogu.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## **11-23/MOC-00070. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, Lizarrako Ospitalean Hemodialisiko Unitate bat eraikitzearen kostuari eta eraginkortasunari buruzkoa**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 24an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, Lizarrako Ospitalean Hemodialisiko Unitate bat eraikitzearen kostuari eta eraginkortasunari buruzkoa. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan Lizarrako García Orcoyen Ospitalean Hemodialisiko Unitate bat eraikitzearen kostuari eta eraginkortasunari buruz, eta horni dezan Lizarrako Osasun Barrutiko hemodialisi-paziente guztiei arreta emateko behar diren materialez eta giza baliabideez".

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/POR-00261. Galdera, oinarrizko osasun-laguntzako plantillak bermatzeko neurriei buruzkoa***DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, oinarrizko osasun-laguntzako plantillak bermatzeko neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu

du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Fernando Dominguez Cunchillos jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zenbait osasun-etxetako plantilla murrizten ari da, lanpostu hutsak bete gabe dituztelako edota oporretan edo baimenekin dauden edo lanerako aldi baterako ezintasuna duten langileak ez direlako ordezkatzen. Ondorioz, herritarrei osasun arreta ematea zaildu egiten da eta langileei lan eskubideez gozatzeko aukera murrizten zaie. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Zer neurri abiaraziko ditu Osasun Departamentuak Nafarroako osasun-etxeen plantillei egonkortasuna emateko eta osasun-arreta behar den denboran eta moduan bermatzeko? Zein epe-tan?

Iruñean, 2023ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

## 11-23/POR-00262. Galdera, BPGari buruzkoa, I+G+b arloko inbertsioari dagokionez

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, BPGari buruzkoa, I+G+b arloko inbertsioari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik jarraitzen du Nafarroak BPGaren % 2ra gutxienez iritsi gabe, I+G+Bko inbertsioari dagokionez?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-23/POR-00263. Galdera, N-121 A errepidearen proiektuko jarduketa-aurreikuspeni buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, N-121 A errepidearen proiektuko jarduketa-aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da N-121 A errepidearen proiektuaren gaur egungo egoera eta jarduketa-aurreikuspenen zehaztapena?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **11-23/POR-00264. Galdera, abiadura handiko trenaren geltoki berriaren eremua eta Iruñeko tren geltoki zaharraren eremua garatzeko Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren hirigintza-izapidetzeari buruzkoa**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako galdera, abiadura handiko trenaren geltoki berriaren eremua eta Iruñeko tren geltoki zaharraren eremua garatzeko Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren hirigintza-izapidetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Noiz egingen da Abiadura Handiko Trenaren geltoki berriko ingurua eta Iruñeko tren geltoki zaharreko ingurua garatzeko Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren hirigintza-izapidetzea?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

## **11-23/POR-00265. Galdera, Nafarroan ari diren boluntarioei buruzkoa**

*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, Nafarroan ari diren boluntarioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lehendakaritzari eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan boluntariotzari buruz berriki egin den ikerketari dagokionez, zeintzuk dira ondorio nagusiak?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## 11-23/POR-00266. Galdera, Nafarroako Ubideko ura Erriberara iristearen datari buruzkoa

*IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduraren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Nafarroako Ubideko ura Erriberara iristearen datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak abenduaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreikuspenen arabera, noiz helduko da Nafarroako Ubideko ura Erriberara?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

## 11-23/POR-00267. Galdera, POCTEFA 2021-2027 programaren esparruan Nafarroari esleitutako dirulaguntzaren xede eta helburuei buruzkoa

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, POCTEFA 2021-2027 programaren esparruan Nafarroari esleitutako dirulaguntzaren xede eta helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuako Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olló Hualde andreak abenduaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela egun batzuk jakin zen ezen Nafarroako Foru Komunitateak 11,07 milioi euro jasoko dituela Europako funtsetatik hurrengo hiru urteetan mugaz gaindiko lankidetzaproiektuak garatzeko, POCTEFA 2021-2027 programaren lehen laguntza-deialdiaren behin-behineko ebazpenarekin bat, zeina programaren Programazio Batzordeak onetsi baitzuen Saint-Gaudensen (Frantzia).

Hori dela eta, hauxe galdetu nahi diogu Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari:

Zehazki, zertara bideratuko dira diru-kopuru horiek eta zeintzuk dira Europako funts horien helburuak, oro har?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres



## 11-23/POR-00268. Galdera, Estatuak Valle H2V Navarra proiektuari emandako dirulaguntzak hidrogeno berdea Nafarroan bultzatzeari dagokionez duen eraginari buruzkoa

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Estatuak Valle H2V Navarra proiektuari emandako dirulaguntzak hidrogeno berdea Nafarroan bultzatzeari dagokionez duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak abenduaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz eran\_tzun dezan:

Duela gutxi jakin zen Zangozan hidrogeno berdea ekoizteko fabrika bat eraikitzea aurreikusten duen Acciona Plug proiektuak estatuaren 15 milioi euroko dirulaguntza jasoko zuela.

Hori dela eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilariari honako hau galdetu nahi diogu:

Diru-kopuruaz haratago eta proiektu jakin bat izateaz haratago, zer ekarriko du berekin dirulaguntza horrek Nafarroan hidrogeno berdearen sustapenerako?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## 11-23/POR-00269. Galdera, gazteen Internet bidezko apustuen gehiegizko erabileraren gainean ohartarazten duten txostenei buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, gazteen Internet bidezko apustuen gehiegizko erabileraren gainean ohartarazten duten txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, 2023ko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zenbait txostenetan agertutako datuak ikusita, non ohartarazten baita gazteek Internet bidezko apustuen gehiegizko erabilera egiten dutela: zer estrategia jarraitzen ari da zure departamentua era horretako adikzioak prebenitzeko eta lantzeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-23/POR-00271. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Erditzeen Zerbitzuari buruzkoa

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Erditzeen Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan abenduaren 14ko Osoko Bilkuran:

Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak iragarri du Lizarrako García Orcoyen ospitalean Erditzeen Zerbitzua eten egingen dela 2023ko abenduaren 7tik aitzina. Zerbitzu horrek 336 erditze artatu zituen 2022an. Orobat iragarri du obstetrizia/ginekologiako profesionalak faltatuko direla egun zehatz batzuetan Lizarrako García Orcoyen ospitaleko larrialdi zerbitzuan guardiak egiteko.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako galdera hau egiten du:

- Osasun Departamentuak edo/eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer egingen dute Lizarrako García Orcoyen ospitaleko Erditzeen Zerbitzua berriz irekitzeko eta profesional horien larrialdietako guardiak betetzeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 6an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

## 11-23/POR-00273. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Erditzeen Zerbitzuari buruzkoa

*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Erditzeen Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Aranburu Berguak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Fernando Dominguezek abenduaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko egunetan jakin dugu Lizarrako García Orcoyen ospitaleak abenduaren 7tik aitzina ez duela erditzerik artatzen; hortaz, Lizarrako osasun barrutiko emakumeek, erditzeko, Iruñeko Nafarroako Ospitale Unibertsitariora joan beharko dute.

Horregatik guztiagatik, honako hau galdetzen diogu Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari: Zerk eragin du neurri hori hartzea eta zer apustu egiten du Osasun Departamentuak García Orcoyen ospitaleko erditzeen zerbitzuari dagokionez?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

## 11-23/POR-00274. Galdera, 2022ko PISA txostenaren emaitzei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, 2022ko PISA txostenaren emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioaren ele-dun Javier García Jiménez jaunak, Legebil-tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, abenduaren 14ko Osoko Bilkurarako:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du Nafarroako Foru Komunitateak PISA 2022 txostenean lortutako emaitzei buruz?

Iruñean, 2023ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **11-23/POR-00275. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Ginekologia Zerbitzuari eta Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitateari buruzkoa**

*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Ginekologia Zerbitzuari eta Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erre-

gelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2023ko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusi dugunez, azken egunotan larriagotu egin dira García Orcoyen ospitaleko ginekologia arloko arazoak; halatan, Estellerriko haurdunak Iruñera eta Tuterara bideratzen dituzte erditzeko. Tuterako Reina Sofía ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatea ere itxita egon da abenduaren 7tik 10era (igandea).

Gobernu honek eta bere Osasun Departamentuak zer neurri hartuko dituzte eta zer baliabide izanen dituzte egon litezkeen mediku-absentziak betetzeko, gaixoengan ondorio negatiborik izan ez dezaten?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

## 11-23/POR-00276. Galdera, ludopatia kasuetarako osasun-laguntzari buruzkoa

*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, ludopatia kasuetarako osasun-laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2023ko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Ludopatia 1980an onartu zen gaixotasun gisa. Gaur, substantziarik gabeko adikzio gisa ageri da osasun mentaleko nazioarteko adituek egindako Nahasmendu Mentalen Diagnosi eta Estatistika Eskuliburuan (DSM-5), zeina mundu osoan erabil-

tzen baitute medikuek eta ikertzaileek gaixotasun mentalak diagnostikatzeko eta sailkatzeko.

Kontsumo Ministerioak urriaren 20an argitaratu zuen Jokoaren Prebalentziari buruzko Txostenaren arabera, jokoazalea gero eta gazteagoa da: % 23k 25 urte baino gutxiago dauka, eta presentziala den arren ausazko jokoetan hasteko bidea, joko-arazo bat izateko arriskua esponentzialki hazten da online-ingurunean, eta gazteak dira ausazko jokoek eragindako balizko nahasmendu bat pairatzeko arrisku handiena daukatenak.

Gaur egun, datu-dibergentzia dago sare publikoan artatutako pertsonen eta gaian adituak diren gizarte-entitateetan artatutakoaren artean, eta horrek pentsarazten digu jokoarekiko adikzio-kasuak gehiago direla datu ofizialek esaten dutena baino, eta ez datozela bat arazo horrek Nafarroan duen eraginarekin, batez ere gazteen artean, beharbada herritarrek ez dakitelako osasun-sare publikora jotzen ahal dutela adikzio hori tratatzeko, edo ez dagoelako behar adina baliabiderik osasun mentaleko saretik jokoarekiko adikzioa artatzeko.

Departamentuak zer neurri hartuko ditu behar den laguntza emateko laguntza eskatzen duten pertsona guztiei, sare publikoan nahiz gizarte-entitate espezializatuetan izan?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

**11-23/POR-00277. Galdera, Tuterako Ospitaleko ZIU zerbitzuari buruzkoa***RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Tuterako Ospitaleko ZIU zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2023ko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Tuterako ospitaleko ZIU zerbitzuaren osasun egoera?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

**11-23/POR-00278. Galdera, foru-erkidegoari eskualdatzeko falta diren eskumenei buruzkoa***JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, foru-erkidegoari eskualdatzeko falta diren eskumenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariak uste al du bere gobernuak sakon aztertu behako lukeela zer eskumen falta den foru-erkidegoari eskualdatzeko, lehentasunak eta egutegi bat ezartzeko Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin etorkizunean izan beharreko negoziazioei begira?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko urtarrilaren 18ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako

kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko urtarrilaren 18ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** José Iruetagoyena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kon-

tseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko urtarrilaren 18ko 17:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias